| | Espediente zk.:<br>N.º expediente:<br>**2023IKOR0004** | **Korporazioaren osaera**<br>Composición de la corporación |
|---|---|---|
| PASAIAKO UDALA | **Sarrera-erregistroa:**<br>Registro de entrada: | - 000000 |
| | **Titularra:** / Titular: | RE LOZANO LAURA |
| IDAZKARITZA<br>**Tel.** 943 344034 | **Ordezkaria:** /<br>Representante: | |
| | **Gaia:** / Asunto: ARDURALDI OSOKO ZINEGOTZI IZENDATZEA / DESIGNAR CONCEJAL CON DEDICACION EXCLUSIVA | |

***Alkatearen ebazpena, 2023/1176 zenbakiduna, 2023ko ekainaren 20koa, zinegotzi bati arduraldi osoa eta esklusiboa esleitzeari buruzkoa:***

***Resolución del alcalde nº 1176/2023, de 20 de junio de 2023, sobre la asignación completa y exclusiva a una concejal:***

Pasaiako Udalbatza osatzeko 2023ko ekainaren 17an egindako osoko bilkuran, zinegotzi guztiak karguaz jabetu ziren, halaber, alkatea hautatu zen eta karguaz jabetu zen.

Visto que en la sesión constitutiva del pleno de Ayuntamiento de Pasaia, celebrada en fecha 17 de junio de 2023, se realizó la toma de posesión de todos los concejales, así como a la elección y toma de posesión del alcalde.

Udal-erregelamendu organikoaren 46. artikuluak ezartzen duenez, udalbatzak bere urteko aurrekontuan diru-kopuru bat jarriko du bere kideen ordainsariei eta kalte-ordainei aurre egiteko, euren udal-eginkizunak betetzen dihardutela.

Considerando que el artículo 46 del reglamento orgánico municipal que establece que la corporación consignará en su presupuesto anual una cantidad para hacer frente a las retribuciones e indemnizaciones de sus miembros en el ejercicio de sus funciones municipales.

Araudi horren 47. artikuluak ezartzen duenez, alkateari eta arduraldi osoan jarduten duten zinegotziei alta emango zaie Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean, eta beren lanagatik ordaindu beharreko ordainsariak eta beharrezko gastuen kalte-ordainak jasoko dituzte udal-aurrekontuen kontura, Udalbatzak ezarritakoaren arabera.

Considerando también que el artículo 47 del referido reglamento establece que el alcalde y aquellos corporativos que desempeñen sus cargos con dedicación exclusiva, serán dados de alta en el régimen general de la Seguridad Social, y percibirán con cargo a los presupuestos municipales las retribuciones por su labor y las indemnizaciones de los gastos necesarios, conforme determine la corporación.

Pasaiako Udalaren 2023ko aurrekontua betearazteko arauak 10. oinarrian ezartzen duenez, alkateari eta gobernu-taldeko beste bi zinegotziri eta talde politiko bakoitzeko kide bati arduraldi osoa aitortzen zaie, modu automatikoan, karguaz jabetzen diren egunetik.

Considerando que la norma de ejecución presupuestaria del Ayuntamiento de Pasaia para el 2023 establece en su base 10 que se reconoce la dedicación exclusiva con carácter automático desde la fecha de toma de posesión al Alcalde, así como a dos concejales más del equipo de gobierno, así como a un miembro de cada grupo político.

**ERABAKITZEN DUT**

**RESUELVO**

Lehenengoa.- Laura Ré Lozano zinegotziari arduraldi osoa eta esklusiboa aitortzea, Udalhitzeko 14. mailari dagokion

Primero.- Reconocer a la concejal Laura Ré Lozano dedicación completa y exclusiva con una retribución

ESKU0f5ec807-eefe-4d03-8d45-eb4239f57b5a

ordainsariarekin eta 2023ko ekainaren 17tik aurrerako ondorioekin.

Bigarrena.- Udalbatzari ebazpen honen berri ematea egiten den lehenengo bilkuran, eta izendatu direnei zuzenean jakinaraztea. Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan eta web orrian argitaratuko da. Hala ere, ebazpena eraginkorra izango da hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Udaleko Pertsonal eta Kontu-hartzailetza sailei helaraztea, behar diren izapideak egin ditzaten.

correspondiente al nivel 14 de Udalhitz y con efectos desde el 17 de junio de 2023.

Segundo.- Dar cuenta de la presente resolución al Pleno en la primera sesión que celebre y notificarlo a las personas designadas, y publicar su contenido en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el Tablón de Edictos y en la web Municipal sin perjuicio de su efectividad desde el día siguiente a la presente resolución.

Tercero.- Dar traslado de la presente resolución a los departamentos de personal e intervención del Ayuntamiento para proceder a realizar los trámites necesarios para su debido cumplimiento.

Pasaia, 2023ko ekainaren 21a / Pasaia, 21 de junio de 2023

IZPTA. / FDO. TEO ALBERRO BILBAO

ALKATEA / EL ALCALDE

IRAGARKI TAULA ETA WEB ORRIA



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: ESKU0f5ec807-eefe-4d03-8d45-eb4239f57b5a
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06410*
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06410*